

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua jada, bideratuta dagoen arren, alderdi asko ditugu egiteko eta hobetzeko. Beraz, gure proiektuaren mamia osatzen jarraitu behar dugu, hots, aplikazio hau martxan jartzeko baliabide batzuk beharko ditugu, jakina, hau arrakastatsua izan dadin. Mota desberdineko baliabideak izango ditugu, hauek fisiko, intelektual eta finantziarioak izango dira.

Lehenik eta behin, baliabide finantziarioak beharko ditugu. Nahiz eta denboraldi baten zehar aurrezten ibili garen, hasierako kostuak ordaintzeko ez da nahikoa, horregatik, aurrezkiak ez ezik, beste diru-sarrera bat ere beharko dugu. Honela, ordainketa guztiak arazorik gabe egingo ditugu eta aurrera egiteko bultzada bat izango da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzarekin elkartuko gara, gure proiektuaren zati bat finantzia dezan, eta guri diru-laguntzak emateko asmoarekin.



Bestalde, gure aplikazioak funtziona dezan, aurreko dokumentuetan aipatu dugun bezala, programatu eta mantentzeko programatzaile bat beharko dugu. Gainera, gure gaitasunengan konfidantza handia dugu, hortaz proiektuaren eginbehar esanguratsuenak guk beteko ditugu, kudeaketa, bezeroekiko harremana... Lan horietarako, geure ezagutza eta esperientzia erabil ditzakegu. Martinek garraio publikoari buruz jakin beharreko guztia aztertu dezake, ordutegiei buruzko informazioa, prezioa, bidaiaren iraupena... datuekin abilezia baitu. Horrez gain, Aiurrek sormen handia du, eta aplikazioa garatzeko orduan hainbat ideia proposatu eta taldea modera dezake. Azkenik, Asierrek jendearekin harremanetan jartzeko eta ideiak egoki adierazteko gaitasuna du, horregatik bezeroen zalantzak argitzeaz gain, lagungarriak izan daitezkeen enpresekin kontaktuan jarriko da, eta aplikazioa promozionatuko du.

Azkenik, baliabide fisikoei dagokienez, Uggasa-ren laguntzaz bi urtez lantoki bat izango dugu, bertan taldelana eraginkorragoa delako, denok eremu berdinean lanean gabiltzalako. Gainera, ordenagailuez gain, aulkiak, telefonoa, mahaiak, beharko ditugu printzipioz lanari ekiteko. Gainera, gizarte moderno honetan WiFi konexioa izatea beharrezkoa da, batez ere gure kasuan, aplikazio bat gauzatzen ari garelako, hori dela eta, Uggasak berak ere eskainiko digu zerbitzu hau guztiz doainik.